


Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko martxoaren 21a



Iruñerriko D ereduko ikastetxe guztietan irakasten du Lontxo Aburuzak.

LUIS AZANZA

Bertsolaritza eta irakaskuntza, harremanak sendotu nahian

■ Hilaren 9an, Senperen eta Xalbador gabe abiatu zen aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketa, Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkarteak antolatuta. Hau ez da, baina, elkarteak urte osoan egiten duen lan bakarra, ez eta, agian, nagusia ere. Bertsolaritza irakaskuntzari erabat txertatzeko ahalegina da gaur egun Manu Gomez elkartekidearen buruhauste eta eginkizun nagusia. Bertsolaritzaren irakaskuntzako ibilbidea 1985. urtean sortu zen Lontxo Aburu-

za eta Nafarroako Gobernuako Euskara Zerbitzuaren eskutik, baina orain urte eta erdi etena gertatu zen. Elkarteak, ordea, ez du amore eman, eta proiektu berria aurkeztu du Manu Gomez bitartez bertsolaritza berriro ikastetxeetara eramateko. Are gehiago, bertsolaritzaren kurrikuluma sortu eta irakasleentzat materiala egiteko buru-belarri ari da bertsolaria. Bitartean, Iruñerriko D ereduko ikastetxe guztietan bertsolaritza irakasten ari da Lontxo Aburuza. ■

Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Horrek ez du deus erran nahi

Gaur zenbait gai dabilzkit buruan, egunotan gertatzen ari diren gauzak buruan bueltaka ibiltzeko aproposak izaki. Fernando Elejalde Tapiak komisaldegian igaro zituen ordu luzeak ezin pentsamendutik uxatu. Bi egun, bi egun Poliziaren eskutan eta ondotik ospitalera, nora bertzela. Mayor Orejak lasai aski azaldu du Barne Ministerioko bertsioa: ez dago torturarik. Gorputzean zituen zauriak kotxe batekin estropozu egiteagatik eta atxiloteta uanean Fernandok indarra erabiltzearen ondorio omen ziren. Hori ezeztatzeko testiguri badago, baina horrek ez du deus erran nahi, torturarik ez dago eta kitto!

Haserrea, inpotentzia, beldurra, ... sentimendu nahasketa bat piltzen ari

zait bular aldean, bihotza estutuz, arnasa oztopatuz. Sentsazio mingarria da. Zer sentsazio izanen ote du Elejaldek berak? Seguru aski komisaldegian baino lasaiago sentituko da; horrek zerbait adieraziko balu guttienez! Baina ez, horrek ez du deus erran nahi, edozein tokitan egonen baita komisaldegian baino lasaiago.

Estatu Espainiarra bartz urtez segidan Nazio Batuen Erakundeko torturari buruzko txostenetan ageri da: atxilotuak torturatzen dira. Orain arte euskaldun aunitzengan zegoen ideia NBE bezalako erakunde batek baieztatzea aipagarria da baina horrek ere ez du deus erran nahi; bertsio ofizialak zertarako daude ba?

Torturei eta dispertsio politikari kiratsa darie, eta berdin eritasun sendaeziak dituzten edota kartzela zigorraren hiru laurdenak bete dituzten presoak kartzelan edukitzeari. Euskal Herriaren gehiengoak adierazi du horrekiko desadostasuna, ilegalitatearekiko desadostasuna. Baina horrek ez du deus erran nahi, gatazkaren hariak beren erosotasunerako mugitzen dituzten horiek artista batzuk baitira ilegala dena legal bihurtzen.

Beldur naiz gaurko Xoko Ttikia ez ote duen panfleto itxura hartu; zenbat zirriborrok hartu duten zakarontzirako bidea arrazoi horrexegatik! Baina honek ez, ez baitu merezi. Gustatzen ez zaionak ez beza irakurri. X

* GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Tafalla: Igandean, arratsaldeko 7:00etan, eliz musikako kontzertua izanen da herriko Kultur Patronatuak antolatuta. Besteak beste, Tafallako Sabina Puertolas sopranoak parte hartuko du, Iru-bide abesbatzarekin eta Orkestra Sinfoniko Akademikoarekin batera.

Elizondo: Mahumak taldeak kontzertua eskainiko du gaur, gaueko 10:30etatik aurrera, herriko Casino ostatuan.

Lizarra: Oskorri, Kepa Junkera eta Kukubiltxo herriko kiroldegian izanen dira gaur, gaueko 9:00etatik aurrera.

Iruñea: Ritual de lo habitual taldeak *The same one* bigarren disko konpaktua aurkeztuko du gaur, gaueko 11:30etan, Artsaia Musik Club-en.

ERAKUSKETAK

Burlata: Daniel Perez Flamariqueren margoak igandera arte ikusgai izanen dira Kultur Etxean. Aretoa astelehenetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara izaten da zabalik, eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara.

Iruñea: Francisco Saenz de Oiza arkitektoaren lanen erakusketa zabaldu dute Nafarroako Museoan. Datorren apirilaren 27ra bitartean izanen da ikusgai.

Barañain: Teresa Izuren margoak ikusgai daude Kultur Etxean, datorren asteazkenera bitartean. Astearte eta ostirala bitartean ikus daitezke, arratsaldeko 7:00etatik 9:30ak arte. Alkerdi galerian, halaber, Antonio San Juanen lanak dira ikusgai, apirilaren 11ra bitartean. Galeria astelehenetik ostiralera dago zabalik, arratsaldeko 7:00etatik gaueko 9:00ak arte.

Iruñea: Artsaia Musik Club erakusketa areto bilakatu da eta bertan dira ikusgai Iruñeko Arte eta Lanbideen Eskolako ikasleen lanak. Zehazki, argazki artistikoen talde erakusketa zintzilikatu dute Artsaian.

ANTZERKIA

Iruñea: Melody Sisters taldeak *Con lo puesto* bere lana taularatu du Miserikordia Etxeko antzokian gaur, arratsaldeko 7:30etatik aurrera.

Azkoien: La Tropera taldeak *Feliz acontecimiento* antzeztuko du herriko Kultur Etxean, gaur hasi eta hilaren 30era arte.

IKASTAROAK

Iruñea: Kontserbazio eta Zaharberitze Tailerrak altzariak, koadroak eta bestelakoak konserbatzen eta zaharberitzen ikasteko tailerra antolatu du. Goizez eta arratsaldez izanen da, apirilaren 7tik ekainaren 12ra bitartean. Parte hartu nahi duenak, 21 26 76 telefono zenbakian jasoko du argibide gehiago.

nafar kronika

Patxi Larrion

Urte osoan

Hamar egun korrika, urtean behingo euskal astea, oinez eginiko ibilaldia, labela eskuratzeko une aproposak. Eztabaida zaharra da, eta antzua maiz askotan. Gauden honetan, behar-beharrezkoak baitira gisa horretako ekitaldiak, edozein eratako kritika egiteko tenorean, argiak itzalak baino zabalagoak direla aintzat hartu behar. Betiere, ekitaldi horietan parte hartzea lasaigarri moduan hartzen den neurrian, zaila dirudi oso orain modan dagoen garapen eutsigarriari heltzea.

Eguneroko bizitzak etengabe azaltzen dizkigu bizi dugun errealtatearen pleguak, anitzetan gaixtoak diren pleguak. Araitzaldeko egur pusketan eskuan izanda ere, euskarari egurra emateko prest daudenak badira izan, eta ez dirudi

horiek iparra galduko dutenik. Bistan denez, zuhurtasunez jokatu beharra dago, baina, aukeran, urte osoko zuhurtasuna nahiago. Azken horrek kontzientzia eta jokamoldeak aldarazten baititu.

Barañaingo langileen afera izan dugu hizpide, eta antza denez luze joko duen kontu baten aurrean gaude. Legea, murrizta dela-eta hainbatetan kritikatu dugun legea, ezbaian baita. Garaiz da erabakiaren larritasuna ezagutu ahal izateko. Normalizazioak oinarri sendoak behar ditu. Egun bateko adierazpenek ez dute errota denbora luzean mugiaraziko. Paperetan bildutako kontsentsua praktikara eramateko gai ote garen jakin beharrean gaude. Konpromezua, urte osoko konpromezua, txondorrari *betegarri* emanez gero zentzuz izan dadila.



asteko pertsonaiak



Isabel Tocino
Espainiako Ingurugiroko ministroa rik.

■ Isabel Tocino Espainiako Gobernuako Ingurugiroko ministroak Itoizko urtegiaren inguruko polemika eta zalantzak areagotu zituen asteartean. COPE irrati kateak egindako elkarrizketan, Itoizko urtegia txikiagotzeko prest agertu zen Tocino, urtegi txikiagoa egitea «oso zentzuzkoa» zela esanez. Ministroaren hitzek izugarritzko zalaparta sortu zuten Nafarroan. Miguel Sanz lehendakariordeak berehala deitu zion Tocinori, eta haren adierazpenak «nahi gabeko hutsegitea» izan zirela argitu zuen. Ordu batzuk geroago Ingurugiro Ministerioak berak zuzendu behar izan zituen Tocinoren esanak. Ministerioaren arabera, Espainiako Gobernuak ez dauka Itoizko proiektua aldatzeko asmoa.



Francisco Javier Saenz de Oiza
Arkitektoa

■ Arantzazuko santutegitik hasi eta Pradoko museorako lazko proiektua bitarte Francisco Javier Saenz de Oiza arkitekto nafarrak 50 urtetan eginiko lanen maketa, proiektu eta planoekin erakusketa inauguratu zuten asteartean Nafarroako Museoan. Orain, 79 urte dituela, egindako lanak ez duela gogobete errepikatzen du ahal duen guztietan. Horregatik uste du ez duela asmatu. Erakusketaren aurkezpenean haren seme Javier Saenzek erran zuenez, «orain, azken urteetan, ari da jasotzen enkargu asko, eta irudipena du gazterik ere arrakasta izan zezakeela». Ez dio lan egiteari utzi, hala ere, eta esku artean ditu Altzuzan egingo den Oteiza Fundazioaren egoitza, Las Palmasko Museoa eta Madrilgo Filosofia eta Zuzenbide Fakultatea, beste lan batzuen artean.

ahaztu gabe!



IKASTAROAK

Iruñea: Andreak antolatuta, hainbat ikastaro egiteko aukera izanen dute iruindarrek datozen hiru hilabeteetan. Emakumeentzat propio, jendaurrean hitz egiteko teknikak ikasteko tailerra antolatu dute. Hamalau orduko iraupena izanen du. Halaber, apirila eta ekaina bitartean, autostimazioa eta abildadeak lantzeko ikastaroa izanen da, eta asteazkenetan emakumeen sexualitateari buruzkoa. Hizkuntzek ere izanen dute lekua Andreak antolatutako ekitaldien artean, ingelesak zehazki. Eta hizkuntza berri bat ikasi nahi ez duenak, etxeko konponketak bere kabuz egiten ikas dezake, apirila eta ekaina bitartean. Baina zuri benetan gustatzen zai-zuna zinema bada, Andreak antolatutako zineforumean parte har dezakezu, asteazkenero. Pelikula ikusi ondoren, ikusitakoa eztabaidatzeko aukera izanen duzu. Hainbat ikastaro emakumeentzat propio antolatu badi-tuzte ere, badira gizonezko eta emakumezkoentzakoak ere, besteak beste *Berdintasunean ikasten* izenekoa. Maiatzaren 15, 16 eta 17an izanen da. Gai praktikagoak ere landuko ditu Andreak; adibidez, sendagarriak edo gure eskubideak zeintzuk diren ezagutzeko ikastaroen bidez.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haur-erentzako saioa 12.30etan.

Iruñea

Zizur Nagusia

Haur Kantari Txapelketako finala

Igande honetan ospatuko dute Gaiarre antzokian eta 22 partaide izanen da bertan

Doneztebe, Burlata eta Lizarrako kanporaketak burutu ondoren, igande honetan, goizeko hamaiketatik aurrera, Nafarroako Haur Kantari Txapelketako finala egingen dute Iruñeko Gaiarre antzokian, urtero legez. Aurten, denetara, 22 talde, bikote eta bakarlarik hartuko dute parte Gaiarreko saio nagusian.

Erredakzioa / Iruñea

MARTXOAREN lehenengo egunarekin batera, Nafarroako Haur Kantari Txapelketa abiatu zen Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan. Ondotik Burlata eta Lizarrako saioak izan ziren, eta igande honetan saio nagusia egingen dute Iruñeko Gaiarre antzokian, goizeko hamaiketatik aurrera. Bertatik aterako dira aurtengo ekitaldiko irabazleak. Lizarran joan den igandean egin zen saioan eman zituzten Gaiarreko finalean parte hartuko duten neska-mutil guztien izenak.

Denetara 22 partaide izanen da igandeko saioan, talde, bikote eta bakarlarien artean. Txikien mailan, Lekunberriko taldeak, Aranoko Maider Ansa bakarlaria, Ilunberriko Arangoiti ikastolako Gaztetxoak bikoteak, Berako Labiaga ikastolako Amaia Irazoki bakarlaria, Lizarrako ikastolako Txitxiburduntziak taldeak, Zizurko San Fermin ikastolako Ainara taldeak, Burlatako Ermitaberriko taldeak, Iruñeko Frantses Jatsuko ikastolako Maider eta Aliciak osatu bikoteak, Leitzako Joseba Urkiola bakarlaria, Zubiriko Xabier Zubiri



Burlatan burutu zen saioan parte hartu zuten taldeetarik bat taula gainean.

OSKAR MONTERO

ikastetxeko taldeak. Altsasuko Inigo Aritza ikastolako Koxkobilo taldeak eta Ilunberriko Aragoiti ikastolako Ostadarra taldeak hartuko dute parte.

Txikien mailako partaideak ezezik, gaztetxoak mailakoak ere izanen dira igandeko saio nagusian. Hain zuzen ere, Lizarrako ikastolako Zohardia taldea, Barañaingo Alaitz Institutuko Lurmen taldea, Zizurko San Fermin ikastolako Zugadi bikotea, Iruñeko Iturruma Institutuko Amaiaur trikitixa taldea, Goizuetako Ene-ritz Arozena eta Saioa Tabernak

osatu bikotea, Lekunberriko Amaia Balda eta Garbiñe Garrikotxeak osatua, Berako Labiaga ikastolako Attonarri taldea, Altsasuko Inigo Aritza ikastolako Katakraix taldea, Lekunberriko Maria Balda bakarlaria eta Zizurko San Fermin ikastolako Olasur taldea.

Igandeko goizeko hamaiketatik aurrera Gaiarre antzokian entzun ahal izanen diren bakarlaria, bikote eta taldeen zerrenda, beraz, zabala da. Eskainiko dituzten abestiei buruz, halaber, denetarik izanen dela azpimarratu

behar da. Kanta herrikoien aldeko apustua egin dute partehartzaile batzuek; beste batzuek, besteak beste, Caroline Phillips eta Mixel Ducau. Gozategi edo Ortiz bezalako taldeen kantak aukeratu dituzte finalerako. Igandeko saioa entzun ondoren, bere erabakia aditzera eman eta aurtengo Nafarroako Haur Kantari Txapelketako irabazleen izenak ezagutu ahal izanen dituzte Gaiarren bildutakoek. Aurten txapelik lortzen ez duenak, datorren urtekoan izanen du beste aukera bat. X

Lekaroz

Lekarozko gazteentzako aterbea konponduko dute

■ 100 milioi pezetako aurrekontua dute lanek

Erredakzioa / Iruñea

LEKAROKO gazteentzako aterbea konpontzeko eta berritzeko proiektua onartu du dagoeneko Nafarroako Gobernuak Kirol eta Gazteriaren Institutuak. Lanek ia 100 milioi pezetako aurrekontua izanen dute. Berrikuntzei esker, 200 laguntzako lekua izanen da aterbean, egun dauden bikoitza.

Kirol eta Gazteriaren Institutuak orain onartutako aterbea berritzeko lanen hirugarren eta azken fasea osatzen dute. Erakina, kaputxinoen ikastetxe zaharra, bi zatitan banatuta dago. Batean, Bigarren Hezkuntzako

institutua dago eta, bestean, gazteentzako egoitza. Aterbea berritzeko lanak iaz hasi ziren. Zehazki, beheko eta bigarren solairuan egin zituzten konponketak. Orain lehenengo solairuko gelak moldatuko dituzte.

Aurreikusitakoa, lanak bost hilabetetan amaituko dituzte. Modu horretan, udako Kirol eta Gazteriaren Institutuak antolatzen dituen ekitaldiak bertan egin ahal izanen dira. Besteak beste, auzolanderiak egin izan dituzte orain artean Lekaroz. Lanak bukatzean, berrikuntzei esker jende gehiago hartzeko moduan izanen da Lekarozko gazteentzako aterbea. X

Buñuel

Udaleku musikalak prest ditu Udal Musika Bandak

■ Uztailaren 2tik 12ra bitartean egingen dituzte

Erredakzioa / Iruñea

BUÑUELGO Udal Musika Bandak udaleku musikaletan parte hartzeko deialdia zabaldu berri du. Aurtengoa bigarren aldiz izanen da, eta antolatzen du Nafarroako Gobernuak Kirol eta Gazteriaren Institutuaren laguntza jaso du Udalak.

Buñuelgo udaleku berezi hauek neska-mutil musikazaleen bilgune izan nahi dute, zaletasun hori bultzatzeko asmoz. Uztailaren 2tik 12ra bitartean egingen dituzte, eta Udal Musika Bandako kideak eta aisialdirako begiraleak izanen dira parte hartuko duten haurrek.

Udalekuan bederatzi eta hamalau urte bitarteko haurrek parte hartu ahal izanen dute. Aurten prestatu duten egitarauari dagokionez, musika tresnekin ekitaldi ezberdinak, kirol jarduerak eta txangoak prestatu dituzte antolatzaileek. Besteak beste, Nafarroako Bardeak eza-gutzeko aukera izanen dute Buñuelgo udalekuan parte hartuko duten haurrek.

Izena emateko epea dagoeneko zabalik da, Buñuelgo Udal Musika Bandaren egoitzan bertan. Telefonoz ere egin daiteke, 83 32 80 eta 83 31 86 zenbakietara deituz. Epea datorren maiatzaren 31n amaituko da. X

'Ezagutu gure oihanak' erakusketa jarri dute Kultur Etxean

■ LANE talde ekologistak antolatu du

Erredakzioa / Iruñea

LUR-ADISKIDEEN Nafar Elkartek (LANE) antolatutako 'Ezagutu gure oihanak' izeneko erakusketa ikusgai izanen da ostegunetik hila amaitu arte. Zizur Nagusiko Kultur Etxeko erakusketa aretoan. Asteleheneetik larunbatera bitartean arratsaldeko 19:00etatik gaueko 21:00ak arte izanen da zabalik, eta jaiegunetan eguerditik arratsaldeko 14:00ak arte.

Erakusketa orain dela hainbat urte sortu zuen LANE talde ekologistak, eta Zizur Nagusira ailegatu aurretik, Nafarroako beste hainbat herritan ikusi dute. Horren bidez, Nafarroako oihanean egoera azaldu eta bertako zuhaitz moten garrantzia nabarmendu nahi du talde ekologistak. Oihana nola sortzen den, haren bizitza nolakoa den, Nafarroako baso mota ohikoena zein diren eta bestelako kontuak ikasi ahal izanen dituzte bisitariek erakusketaren bitartez. Basoen egungo arazoak ere aztertuko ditu LANEk, besteak beste, suteak, lur zatien berrantolamendua, euri azidoa eta abar. Arazo horiei konponbidea ematen ere saiatu dira taldeko kideak. X

Tutera

Ekologiari buruzko argazki lehiaketa antolatu du Udalak

Erredakzioa / Iruñea

TUTERAKO Udalak argazkigintza ekologikoari buruzko lehiaketa antolatu du, datorren maiatzaren ospatuko duten Ingurugiroari buruzko Bigarren Astearen barruan. Lehiaketa argazkilari zaletu guztientzat dago zabalik eta Nafarroako ingurugiroari buruzko gaien inguruko lanak aurkeztu beharko dituzte. Lanak, txuri beltzean edo koloretan aurkeztu ahal izanen dituzte partaideek.

Partehartzaile bakoitzak, gehienez, bi lan aurkeztu ahal izanen ditu lehiaketak ezarri dituen hiru modalitateetan, alegia: argazkirik ekologikoenaren saila, argazkirik ezko-reenaren saila, eta argazki itxaropentsuenaren saila. Lanak aurkezteko epea apirilaren 28an amaituko da, arratsaldeko ordu bietan. Sail bakoitzeko, 50.000 pezetako saria banatuko dute antolatzaileek. Epalmahaiaren erabakia, Ingurugiroari buruzko Bigarren Astearen barruan jakinaraziko dute. X

Eskolako bertsoak

Urte eta erdiko etenaldia gertatu ondoren abian da berriro eskoletan bertsogintza ikasteko proiektua

Eskoletan bertsoak egiten irakatsiko zuenik ez da falta izan Nafarroan azken urteetan. Orain dela hamabi urte, 1985. urtean, bertsolaritza ikastetxeetan irakasteko proiektua abian jarri zuen Lontxo Aburuza bertsolariak. Orain urte eta erdi bertan behera gelditu ondoren, berriro berreskuratu dute eta Manu Gomez da koordinatzailea. Egindako lanak eman du fruiturik, eta egun, entzungai dira gure plazetan eskolako bertsoak.


Eduene Elizondo / Iruñea

HILAREN 9-AN abiatu zen Senperen eta Xalbador gabe aurten go Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Joan den igandean bigarren saioa burutu zuten Zizurren, eta igande honetan bertan, hirugarrena egingen dute. Luzaiden oraingoan. Lehian dira, beraz, egungo bertsolari nafarrak, gazteak eta ez hain gazteak. Bertsolaritzaren taupada neurtzeko ezinbesteko tresna badira ere, txapelketak ez dira bertsolaritzaren mundu eta arima osatu eta elikatzen duten bakarrak, zain asko dituen mundua baita, finean. Eta horietako batek irakaskuntzan du oinarria; gainera, askorentzat horixe da nagusietakoa.

Bertsolaritzaren irakaskuntzaz ari gara, eskola eta ikastoletan lehendabizi eta Bertso Eskoletan gero, bertsoa zer den eta bertsoa nola egiten den adin ezberdineko neska-mutilei irakasten dieten bertsolarien lanaz, Nafarroan 1985. urtean abiatu zen lanaz.

«Gipuzkoan eta Bizkaian ari ziren, eta hemen ere, bertso eskola sortzeko desioa izan genuen. Amuriza etorri zen orduan ikastaroa ematera, eta aukera baze goela ikusi genuen. Berak animatuta hasi nintzen lan honetan», gogoratu du hastapena Lontxo Aburuza bertsolariak. Lan hori, Nafarroako Gobernuak Euskara Zerbitzuaren bidez, D eredua zuten Nafarroako ikastetxeetan bertsolaritza irakastea zen. «6 talde izan nituen lehenengo urtean, 42 azkenekoan».

Eta azkena, orain dela urte eta erdi amaitu zen, orduan, Nafarroako Gobernuak proiektua bertan behera uztea erabaki baitzuen. Baina urte eta erdiko etenaldiaren ondoren, abian da berriro. Gobernu aldaketarekin batera, proposamena berriro luzatu zion Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkarteak Euskara Zerbitzuari, eta honek, baiezkota eman zuen. Manu Gomez bertsolaria eta elkarteko kidea da proiektu



Lontxo Aburuza, Amaiur ikastolako haurrei bertsolaritza irakasten.

LUIS AZANZA

Manu Gomez: «Kurrikulumari esker, Nafarroako ikastetxe guztiek izanen lukete bertsolaritza irakasteko aukera»

berriaren koordinatzailea.

«Egungo egoera bestelakoa da, irakaskuntzaren erreforma gainera etorri zaigulako, eta eman beharreko hainbat aurrerapauso ezin izan ditugulako eman, etenaldia gertatu eta gero», hasi zaigu Manu Gomez. Baina hala

eta guztiz ere, ilusio handiarekin ekin dio lanari aitortu digunez, eta buru-belarri sartu da bereztat orain funtsezkoak diren bi zereginetan: «Bertsolaritzaren kurrikuluma osatu, hautazko ikasgaia izan dadin ikastetxeetan, eta horrekin batera, beha-

rrezko materiala sortu bertsolaritza irakatsiko duten irakasleentzat».

Kurrikuluma osatu eta materiala prestatu • Manu Gomezek argi ikusten du bertsolaritzaren kurrikuluma osatzea eta onartzea hagitik garrantzitsua izanen litzatekeela, «Nafarroako ikastetxe guztietan izanen luketelako bertsolaritza ikasteko aukera». Bere helburua, finean, bertsolaritza irakaskuntzan erabat txertatzea

da, «urte hauetan guztietan lortu ez duguna».

Urte hauetan, baina, egoera eta ikuspegia aldatu dela nabarmendu du Manu Gomezek, egindako lanaz mintzatzean. Bere ustez, orain artean bertsogintzari eman zaio garrantzia handiena, «eta garrantzia duen arren, uste dugu ikastetxeetan bertsolaritza erabili behar dugula tresna balitz bezala, beste helburu batzuk lortzeko, euskara lantzeko batez ere, baina baita musika edo his-

Bertsolaritza
Nafarroako ikastetxeetan

toria lantzeko ere. Azken bi mendeotako historia, adibidez, bertsotan idatzia dago. Laburbilduz, gure helburuak bertsogintzatik baino haratago daude, aipatu du.

Zio hauek guztiak Nafarroako ikastetxeetako arduradunekin ere aipagai izan ditu Manu Gómezek, azken hilabete eta erdian, eta erran digunez, interes handia piztu du proiektu berriak horien artean. Poztekoa, kontuan hartuta ikastetxeetako irakasleek paper garrantzitsua beteko dutela plan berri horretan. «Azken hamaika urteetan ikastetxeetan egindako lanari esker aurrerapauso handiak eman ditugu, baina nire ustez, bazen akats bat, hau da, kanpotik etorritako noirbaitek irakasten ziela neska-mutilei. Gure asmoa, lan hori ikastetxeko irakasleen esku uztea da. Horregatik da hain garrantzitsua materiala sortzea».


Iruñerriko ikastetxeetan hiru

urterako proiektua • Orain urte eta erdi Nafarroako Gobernuak herrialdeko ikastetxeetan burutzen ari zen proiektua bertan behera utzi bazuen ere —eta gertaera horrek bultzatuta neurri handi batean—, Iruñerriko ikastetxeetan proiektu berria jarri zen abian aurtengo ikasturtearekin batera. Lontxo Aburuzak zuzentzen du.

Gaur egun, Iruñerrian D erdua duten ikastetxe guztietan —19— irakasten die bertsolaritza bederatzi eta hamabost urte bitarteko neska-mutilei. Osotara, 135 talderen ardura du bere gain. «Gelan egiten dugun lana ezezik, asteazkenero Euskalerrira Irratian ordu erdiko saioa egiten dugu» azaldu du. Lan hau ez da berria berarentzat, hamaika urte baitarama horretan. Eta duen eskarmentuagatik, haur txikiekin lan egitea da bere ustez zailena, baina baita eskertuena ere. «Hustu egiten naiz baina merezi du, fruituak jasotzen ditugu. Eta haurrek, gogotik egiten dute lan. Pozgarria da ikustea, adibidez, hurrengo astean gelan egin behar genuen lana etxean egin dutela, nahi dutelako».

Fruituak, eta bertsolari berriak, bertsolari gazte berriak. Hau, dena den, ez da Lontxoren zatitza helburu nagusia. «Zalantzarik gabe, Nafarroan, bertsolaria eta bertsosazalea ez den herri batean bertsolari gazteak sortzeak erran nahi du lan handia egin dela. Baina gure asmoa ez da hori, bertsosazaleasuna piztu nahi dugu guk, giroa, saltsa». Bertsolariak argi dauka: «Hemendik hiru urtera —hiru urterako proiektua da— haur hauen gurasoek ikusiko dute zaletasuna dutela. Olentzero eguna iritsiko da eta bertsosazaleak abestuko dituzte, bestetan bertsosazaleak abestuko dituzte, eta ikastolan aldizkaria ateratzen badute, bertsosazaleak idatziko dituzte».

Ikastetxean bertsosazale bilakatzeko denarentzat, bertsosazale eskola da hurrengo urratsa. Bertatik, plazaratu dira jada euren bertsosazaleak airean diren beste bertsolari gazteak. Hauek, berezitasunik badute Lontxo Aburuzaren ustez: «Hizkuntza erabiltzeko era, gaiak tratatzeko mo-



Manu Gómez da Euskara Zerbitzuaren bitartez abian jarritako proiektuaren koordinatzailea.

LUIS AZANZA

dua, estilo ezberdina dute. Badi-tuzte idoloak, baina gertatu da Bizkaian eta Gipuzkoan hasi direla gazteak bertsolaritza klasi-koa apurtzen, hor daude Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio, eta beste». Bertsolari nafar gazteek buruz ere badu zer erranik Lontxo Aburuzak: «Nafarroan maila batera iritsi gara eta orain da unea gazte horiek euren bideari ekiteko. Eskolan irakatsi diegu,

bertso eskolak abian jarri ditugu. Xalto Saria hor dago, baina hortik aurrera ez dugu ezer eginen. Txapelketak antolatuko ditugu baina orain gazteok euren bidea jorratu behar dute».

Manu Gómezen ustez ere, garapena izan da bertsolaritzaren munduan. «Gaur egun, eskoletan teknika asko lantzen da eta zaila da bertsolariek alde horretatik huts egitea. Halaber, gaur egun-

go bertsolariek ikuspegi zabala goa dute. Garapena gertatu bada ere, bertsolaritzaren funtsa ez da gehiegi aldatu, baina bai, orde, irudia». Iritzi berekoa da Lontxo Aburuzak. Berako Labiaga ikastolako zortzigarren mailako neska-mutilekin gertatutako bitxikeria aipatu digu adibidez: «Lehenengo eguna zen eta bertsolaritza zer den galdetu nien. Isilik gelditu ziren, eta bat batean,

haur batek eskua altxatu eta bota zidan: 'nik badakit, aitona txapel batekin'».

«Hori zen berak zuen irudia, zaharra eta baserritarra, ez belarritakoa duen mutil bat», azpimarratu du Aburuzak. Bere ustez, hamar urte hauetan erabat aldatu da bertsolaritzaren irudia: «Ordutako ez du zerikusirik gaurkoarekin. Beste kolore batzuk ikusten dira gaur egun».

Bertso eskolak, herrietako harrobia

Lontxo Aburuzak Nafarroako ikastetxeetan hasitako lanak laster izan zuen jarraipena. Neska-mutilek lekuren bat behar zuten eskolan piztutako zaletasuna lantzeko, eta behar hori ikusita, Bortzirietako Bertso Eskola sortu zen 1989. urte inguruan. Manolo Arozena bertsolari goizuetarraren eskutik sortu bazen ere, egun Bittor Elizagoien baztandarra da gidari.

Bortzirietako Bertso Eskola izena badu ere, aipatu beharra dago eskualde horretan ez dela Lesakan egoitza duena bakarrik, bere baitatik beste bi eskola sortu baitira, bat Etxalarren eta beste Beran. Etxalarrekoan Iñigo Olaetxea bertsolari gaztea da ardura, eta Beran, berriz, Estitxu Fernandez. Bortzirietakoa aitzindari izan bazen ere, bestetan ere sortu dira eskolak azken urteetan, besteak beste

Goizueta, Etxarri-Aranatz eta Iruñeko hainbat ikastolatan eta Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkartearen egoitzan bertan.

Bortzirietako Eskolari dagokionez, bertako ikastolan hasitako lanari jarraipena emateko sortu zen, Manolo Arozenak azaldu digunez. «Bertsolaritza ikastolan ezagutu zuten haurrak, baina handik atera eta sakabatatuta gelditu ziren, hemen ez baitzegoen bertze aukerarik. Horregatik sortu genuen eskola. Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez, Iñigo Olaetxea, Xabier Silveira... talde horrekin hasi ginen», gogoratu du Goizuetakoak.

Gaur egun Euskal Herri osoko plazetan ezagunak diren bertsolari horien atzetik ere sortu da belau-naldi berria, orain artean eskolarteko txapelketetan erakutsi duena dakiena.



Ikastetxe eta bertso eskoletatik plazara ateratzen ari dira bertsolari gazteak.

ARTXIBOKOA

Manolo Arozena kontent da orain artean Lesakako eskolan lortu dutenarekin, «ongi funtzionatzen baitugu». Ostiralero, arratsaldeko 7:00etatik 9:00ak arte biltzen dira ikasle eta irakasleak. Bitalde daude, bat-batekoa eta oraindik hasten ari direnek osatutakoa. Denetara, 15 bat gazte. Etxalarren ostegunetan

biltzen dira eskola osatzen duten hamaika bat neska-mutik, arratsaldeko 7:00ak eta 8:00ak bitartean, eta Beran, berriz, asteazkenetan dute lan saioa bertako eskolan ari diren zazpi bat haurrek, ilunabarrean.

Bortzirietan bertsosazaleasunak gora egin badu ere, Manolo Arozenaren ustez telebistan ez ager-

tzeak hoztasuna ekarri dio, «batez ere umeen aldetik. Ez dut erran nahi saioetara jendea joaten ez denik, baina orain zazpi-zortzi bat urte Jon Sarasua, Unai Iturriaga edo Aitor Elorza bezalako bertsolariak atera zirenean, erakargarritasuna sortu zuten haurrengan, orain gertatzen ez dena».

Beste aldaketa bat ere izan da orain dela urte batzuetatik hona: Bortzirietako bertso eskoletan behintzat, neskek dira gehienak. «Neskek bakarrik jarraitzen dute! Lesakan, hamabost haurretatik hamar edo hamaika neska dira», azpimarratu du Manolo Arozenak. Bere ustez, «saioetakoak, finagoak, argiagotakoak dira» orokorrean neskek. «Eustea nahiko nuke nik, euren gisa hasten diren arte. Orduan ikusiko dute bertsolaritzak bilatzen dutena ematen dien edo ez». X

Zer da Ekintzaz Lagundu?

■ Martxoaren 17an egin zen, Iruñeko zinetoki jakin batean, Ekintzaz Lagundu izeneko erakundearen urteroko bilera. Bertan 125 bat lagun izan ginen, azken urte honetako gertakari nagusien informazioa jasotzen, bideo interesgarri bat ikusten, eta bukaeran, galderak, erantzunak eta iradokizunak egiten.

Aurrera jarraitu baino lehen saiatu beharko dut azaltzen, nola edo hala, zer den Ekintzaz Lagundu. Hona hemen, ba, Ekintzaz Lagundu gobernu kanpoko erakunde independente bat da. Bere helburu nagusia, Hirugarren Munduko herrialderik gutxietsienetako komunitate, familia eta haurren bizimodua hobetzea da. Hau guztia saiatzen da egiten, garapen osoko egitasmoak bultzatzearen bultzatzeaz.

hainbat egitasmo beste hainbeste lekutan, baina bakoitza hamabost urtetan zehar. Garbi ikusten denez, beraz, egitasmo horiek epe luzerakoak dira. Eta funtsezko jokamoldea zera da, helburua ez dela inondik ere karitatea egitea eta hango jende behartsuari laguntzea besterik gabe, ez, baizik eta hamabost urte horietan zehar azpiegiturak sortzea, baina beti bertako jendea inplikatur beren borondatearen arabera, azkenik, hamabost urte horien buruan, bertakoak izan daitezen azpiegitura berri eta beharrezko horien kudeatzaileak, eta ahalik eta buruaskienak.

Egitasmo horiek honako alor hauexek lantzen dituzte, besteak beste: osasuna, garbitasuna, edateko urak eta ur beltzak kanaliza-



Erakunde hau Espainian 1981. urtean sortu omen zen. Mundu mailan, behar bada, lehenago.

Ekintzaz Lagundu, argi dagoen bezala, euskaraz duen izena da, baina pixka bat laguntzearen, eta batez ere jakinda jende guztiak ez duela guztiz ongi menperatzen euskal lexikoa, esanen dut gaztelaniaz, adibidez, *Ayuda en acción* duela izena.

Izen kontu hauek pixka bat argitu ondoren, saiatuko naiz informazio gehixeago ematen, esaterako, Espainiako Estatuan 64.000 kide omen gara erakunde hau laguntzen dugunak. Nafarroan 1992an sortu omen zen ordezkariak, eta gaur egun 1.200en bat kide omen gara. Boluntario lanak egiten aritzen direnak 15en bat omen dira.

Gobernuz kanpoko erakunde honen hiru kontinentetan lan egiten du, alegia, Latinoamerikan, Afrikako hiruzpalau naziotan, eta Asiako Indian eta Nepalen.

Gorago esan dudana bezalaxe, erakunde honek eramaten ditu aurrera

tzea, nekazaritza, hezkuntza, oiha-netazpenak, komunak jartzea, haur besoetakoei laguntza ematea eta abar.

Gauzatzen den beste laguntza mota interesgarri bat zera da, txandakako diru maileguena. Hitz gutxitan azalduta, honetan datza: herrialde horietako jende behartsu horiek ez du izan ohi baliabide ekonomiko handirik, beraz, egiten dena zera da, pertsona bati ematen zaio diru mailegu bat.

Bere eginbeharra abian jarri ondoren, mailegu hori ematen zaio beste behartsu bati, eta horrela etengabe.

Badakit beste mila gauza interesgarri gehiago kontatu litekeela gai honen inguruan, baina artikulutxo batek ez du askoz gehiagorako ematen. Lortu baldin badut norbaiten jakinmina, honen inguruan, pixka bat piztea eta sustatzea, aseta geldituko naiz. Dena den, interesatuek jakin bezate antzeko erakunde gehiago ere badagoela. Anima zaitzete laguntzera, premia handia da eta! ■

Metantzerkiaren adibide bi

■ Geure marrazkilari xaloeak, eta espantu haundiz, telebistari dioten higuin gordina azalerazien dutenean, eta ezinago penaturik, euskaraz tajaturiko argitalpen satiriko sendo baten beharra aldarrikatzen dutenean, aharra hutsal batean murgildurik doazkigulako segurantz osoan bagaude, ez ordea haiekin bat ez gatozelako, telebistek honez kero borroka garaitu dietelako baizik, eta, seguroenik ere, ez euskararen mesederako beti. Eta hau diogunean, Nafarroan indarberriturik agertu zaigun telebista genuke adibiderik garbienetakoa: erzo bezain aspergarri, errepikatzaile bezain flako, lekeda bezain arin... Azken buruan, arazoa ez geneukake telebistan propio, ikusentzulegoan baizik: to bazka, irenits ezak, kaskamuniek kek egin arte zart! Eta oraingoan horren ezinbesteko eskeintzen diguten telebistaren betebeharra, behiala eta luzaroagoz, antzerkiak egin zuen, txukunago eta sakon baina. Bestalde, lanen begiztatzeko gutizia bizi-bizia bide zitzaigun, asetzeko zeuden aukerak baino ozenago beti, eta zailtasun hauek jendearen jukutria zorrozten lagundu zuten bereziki.

1. Exenplua: 1689.eko Tuteran, eta urtarillaren zazpian iragarrita zegoen komediarako, Vizcaino abizeneko 16. urteko mutiko koxkorak emaztekin gela bateko sarrerak erdietsi zituen nonbait. Jakina denez, ez genuen jua-abastu goianditua tuterar gaztea, eta dohainik eskuratu bi sarrerak ematen zioten aukera burutik aldentu ezinik, hiriko bi apezek galdatu zien, aferaren aitzinarazteko. Esteban Santafe eta Domingo Luna apezek erabaki zutena alsa burutzekoa zen, emakumez jantzirik, eta ordaindu gabe, zorioneko sarrera haien ustiatze ixilpekoa. Alabaina, sargietan aiduru zeuden iguriek, iruzurraren usaile apartek, begiak eduki zituzten amarrua atzemateko, eta hartaz interesatuei ohararazi, zaluiren zalu alde eginarazi zieten porruak jorratzera. Txangoa hutsaren aparran geratu zen, bidebatez katu gutizosoari muturra erre omen zitzaioleko. Etzen hartan geratu baina, eta halako hobon sonatua zigortzeko, Esteban Santafe hura giltzaperatu zuten. Epaia, samurregia etzen izan, eta espetxetik aterata, bi hilabetez goizean ala arratsalde ospitalera joan beharra izan zuen landerre jatera emateko.

2. Exenplua: Hegoaldekoan gizonek emaztearena eginahaletan, iparraldeko honetan ordea, ohizko moldeak hautsiz, andrazkoa gizonezkoek beregain hartu ohi duten artaren arduradun eta jagole ausarta dugu. Bejon deiola, Marguerite Brunet 1730.eko abenduaren 18an sortu zen Baionan. Bortoleko ursulindarretan ikasi ostean Parisa joan zen amaren aldetiko izeba batengana, arropa denda baten jabea zen Montansierreko andrearengana alegia. Berarengandik geroantzean berauk ere erabiliko zuen izena jaso zuen bilobak. Parisen hamar urte zeramatzanean Honoré Bourdon Neuville aktorearekin maitemindu zen, eta horren kariaz antzerkiaren munduan sartuko zen betiko. Aktorea izan zen, ikuskizunen zuzendaria eta galaia, baina berehalaxe utzi zuen hau dena espekulazioan murgiltzeko. Zenbait lagun bereziki eskerrak Rouengo antzokia ustiatzeko eskubidea bereganatu zuen, eta hainbat konpainia ezberdinen zuzendari lanak egin zituen. Havreko antzokia eraikarazi zuen. Nantekoaren eskubideak 1765.ean lortu, eta azkenekoz Nantesen ezagutu zuen M. de Saint-Conty-ri esker Versailleskoarena ere erdietsi. Versaillesen eginiko emanaldi batetan Brunetek Maria Antonieta erregina ezagutu zuen, eta handik gutxira Gortearen ikuskizun, dantzaldi, festa eta abar guziren eskubidea bereganatu zuen. Orduan haunditu zuen Théâtre du Palais Royal antzokia, 1777.ean inauguratu zena. Antzoki honetan bere dohai dramatikoak garatu zituen batez ere, eta izen haundiko aktoreak hazi zituen, besteak beste, Amiel, Dugazon, Fleury, Granger, Madame Saint-Aubin edota Tiercelin. Maria Antonietak gainontzeko erret antzokien zuzentzeko eskubidea ere eman zion: St-Cloud, Marly, Fontainebleau, Compiègne, eta hurbil izan zen gorteko deklamazio irakasle izendatzetik, bere azentuarengatik ez balitz izan, Durasko dukearen begiko onartezina zena.

1789.eko iraultza piztu zenean, Frantzia osoko antzoki guzien kudeaketa eskuratzeko ahaleginetan zebilen. Iraultzaileei susmagarri oso gertatzen zitzairen Brunet andrea aurretik nobleekin eduki harreman narak zirela eta. Hau guztia eragatik estrategia aldatu behar izan zuen, eta Parisko erret antzokitik hurbil zegoen marioneten antzokitzar bat erosi zuen baita bertan bere konpainia ezarri. Esan gabe doa iraultzarekin aurretiko eskubide guztiak, antzerkiari zegozkionean bederen, bertan behera geratu zirela. Antzoki berri hau 1791.eko urtarillan zabaldu zuen eta bere izena paratu zion, Théâtre de Montansier hots. Bere konpainian famazko aktore ugari izan ziren eta iraultzaileen sumindurak ez erakartzeko, hainbat eta hainbat lan aberkiak taularatu zituen, besteen artean, Lavalléeen *Le départ des volontaires villageois*, Orvignyren *Le carnagole à Chambéry*, edota Valmonten *Le compagnard révolutionnaire*. Hauez gainera izen ozenagoko lanen estrainekoa eskeini zuen, berbarako Dubuisson eta Storaceren *Les époux mécontents* edota Desforgesen *Lesourd ou l'auberge pletne*. Urte nahasi hauean, ezinezkoa zen lido bati atxiki, eta konbentzio gerratek antzerkigintza erabat etendu zutenean, Belgikarako bidean ezarri zuen bere antzestaldia; Bruselaren sartu ziren gudaosteekin batera. Alabaina, bertan etzuen arrakasta haundirik lortuko, eta berriz ere Parisa abiatu, errepublikaren antzoki nazionala, hau da, Théâtre de la République et des Arts ireki zuen 1793.eko abuztuaren 15ean. Dena dela, orain arteko egin jokaldi guziek ezin zuten espetxetik libratu, eta thermidorren bederatzira arte iraun zuen preso hamar hilabetez, bere antzoki ondoan zegoen liburutegi nazionala erretzeko asmoz zebilela salaketapean. 1795.ean arrabataiatu zuen bere antzokia, eta orduz geroztik Berdintasuna antzokia izanen zen. Halarik ere, 1798.ean eta bere egoera ekonomikoaren kariaz, bost bazkideetako elkargo bati saldu zion, jatorrizko Variétés Montansier izena mantentzi zioten arren. Honetan arrakasta itzelak lortu ziren, 1807.ean itxi zuten arte. Geroantzean beste antzoki bat zabalduko zuen Montmartre karrikan, baina indarrak ahultzen zitzaizkiola apurka, lehenagoko oihartzunik etzuen jada erdietsiko. Marguerite Brunet La Montansier balion ospetsua zahar itzali zitzaigun, 1820.eko uztailaren 13an, XVIII. mendeko frantziar antzerkigintzako zutaberik irmoenetakoa izan ostean. ■

Zaharrek egoitzaren zain

Betelu, Lekunberri, Leitza eta Larraungo udalek zenbait proiektu prestatu dituzte zahar etxeak egiteko

Lekunberri, Betelu, Larraun eta Leitza udalek eskualdean zahar etxea egiteko zenbait proiektu prestatu dituzte. Zaharren egoitza egitea aspaldi proposatu zioten eskualdeko udalek Nafarroako Gobernuari, eta hainbat gora-beheraren ondoren, onartu egin zuen. Proiektuen artean bat aukeratu behar dute orain udalek.

koa onartu zenean, baina, Lekunberri, Larraun, Imotz, Basaburua, Areso, Leitza eta Araitza-Betelu aldean zahar etxea egiteko aukera ez zuela jasotzen konturatu ziren eskualdeko udalak. «Gobernuaren ustez, Iruñetik asetzen zirelako inguru honetako beharrak», aipatu du Aierdik. Baina udaletako arduradunek ez zuten amore eman eta Nafarroako Gobernuak kideekin berriro bildu ondoren, beren proposamena jasotzea lortu zuten.

Eskualdea erabakiaren zain • Eskualdeko udalen esku dago orain auzia, proiektu ezberdinak

aurkeztu baitituzte Lekunberri eta Beteluko udalek, eta bide berean dira Larraun eta Leitza udalak. Zahar etxea non egonen den erabakitzea da orain auziaren gako. Herri bakoitzarentzat, berea da aukerarik onena. Beteluko Udalak, adibidez, lehen Soravilla izeneko hotel-balnearioa zen tokian kokatu nahi du zaharren egoitza. Bere proiektuaren alde kokapena, klima eta bainu-etxea bertan egon izana nabarmendu du Jesus Gonzalez Beteluko alkateak.

Lekunberriko Udalak beste proposamen bat egin du, herrian etxe berria egin nahi baitu. «Etxe

berria eginez gero, eraikuntza beharretara egokituko da», aipatu du alkateak. Lekunberriko Udalak herria eskualdeko erdigunea dela azpimarratu du, besteak beste, bere proiektuaren alde.

Lekunberrikoak bezala, bestalde, etxe berria proposatu du gaur Leitza udalbatzak eztabaidatuko duen proiektuak. Ez, ordea, Larraungo Udalarenak, Mugiron dagoen Gurutze Gorriaren egoitza zaharra erabiltzea proposatu baitu bertako Udalak.

Proiektuen artean egokiena zein den eztabaidatzen jarraitzen duten bitartean, eskualdea era-

bakiaren zain dago. Jesus Gonzalez Beteluko alkateak, hain zuzen ere, erabaki hori lehenbailehen hartu behar dela nabarmendu du. «Nafarroako Gobernuak une honetan lanei ekiteko prestatu dago, baina denbora gehiago galtzen badugu, agian beste herriren bateko proiektuari emanen diote lehentasuna», esan du Jesus Gonzalezek.

Beteluko Udalak astearterako deitu duen bileran bakoitzak bere jarrera zehaztea espero du alkateak, «finean, garrantzitsuenak ez baita etxea Betelun edo Lekunberri egitea, eskualdean egotea baizik».

Eduene Elizondo / Iruñea

LEKUNBERRIKO eta Beteluko udalek, eskualdeko adinduek dituzten beharren inguruko ikerketa egin ondoren, zahar etxea egiteko proiektu bana aurkeztu dute. Leitza eta Larraungo udalak ere lanean ari dira. Leitza udalak gaurko batzarrean eztabaidatuko du Keni Zelaia idazkariak eta arkitekto batek eginen proiektua, onartu edo atzera botatzeko. Larraungo, halaber, etxea Mugiron —Gurutze Gorriaren egoitza zaharrean— egiteko proiektua aztertzen ari da.

Lau proiektu, beraz, etxe bakar baterako. Horien artean aurrera zeinek egingen duen erabakitzea da orain eskualdeko udalen egin beharra, orain hiru aste egin bileran zehaztu baitzuten proiektuen artean bat aukeratu eta hori aurkeztuko ziotela Nafarroako Gobernuari, laguntza jasotzeko. Gaia eztabaidatzeko, hain zuzen, beste bilera baterako deia eginga du jada Beteluko Udalak. Datoren asteartean izanen da Betelun bertan, arratsaldeko zortzietan. Udalen artean akordiorik lortu ezean, udal bakoitzak bere proiektua defendatu beharko luke, eta erabakia Nafarroako Gobernuaren esku utzi.

Inguruan zahar etxea egiteko aukera orain dela lau zapabost urte planteatu zieten bertako udalek orduko Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizateko arduradunei, baina proposamenak ez zuen aurrera egin. Aldi berean, erresidentzia pribatua egiteko aukera sortu zen, eta Larraungo Udalak onartu bazuen ere, Lekunberriko eta beste hainbat herritako udalek ezezkia eman zioten proiektuari. «Horrek hemen zaharren egoitza publiko bat jartzeko ateak ixten zituela uste genuelako eta ez genuelako nahi gure eskualdean egonen zen baina beste leku batzuetako jendeak beteko zuen zahar etxerik», aipatu du Jose Maria Aierdi Lekunberriko alkateak. Finean, etxerik gabe jarraitzen dute oraindik eskualdeko zaharrek.

Auzi honetan garrantzi handikoa da, halaber, Nafarroako Gobernuak orain dela bi urte eztabaidatzen hasi zen Plan Gerontologikoa. Eskualdeko udalek, berriro ere, Gizarte Ongizateko arduradunei kezka helarazi zieten, baina ez zuten erantzun zehatzik jaso. Plan Gerontologi-



Eskualdean aspaldi ikusi zuten zaharren egoitza egiteko beharra.

ARTXIBOKOA

Proiektu ezberdinak etxe bakarrerako

LEKUNBERRI, Betelu, Leitza eta Larraungo udalek proiektu ezberdinak prestatu dituzte. Lekunberrikoari dagokionez, pilotalekuaren ondoan jarri nahi du zahar etxe berria, eta 50 laguntzako lekua izanen da bertan. Hiru solairu izango lituzke.

Lekunberriko Udalen eredu, halaber, erabat publikoa izanen da. «Jabego publikokoa izateak kudeaketaren kontrola ziurtatzen du», dio Udalak prestatu proiektuan.

Beteluko Udalak prestatu duen proiektuak

bestelako kudeaketa eredu proposatzen du, mis-toa, hain zuzen. Kapital pribatua sartzeko aukera jaso badu ere, baldintza zehatza ezarri du Beteluko Udalak, alegia, «% 54 publikoa izatea beti», azaldu du Jesus Gonzalez alkateak. Etxea herri erdian dagoela azpimarratu du Beteluko alkateak, «eta inguruan hutsik dauden etxeak badaude-nez, badago noizpait handitzeko aukera ere».

Leitza udalak gaur eztabaidatuko duen proiektuari dagokionez, bestalde, Lekunberriko

bezala, erabat eredu publikoa izanen da. Keni Zelaia udaletxeko idazkariak azaldu digunez, «Kudeatzeko patronatua, mankomunitatea edo zer osatzen dugun oraindik zehaztu gabe dago».

Zahar etxeak hartuko duen eskualdeari dagokionez, halaber, hainbat zehaztasun egin ditu Zelaia: «Normalean, Arano eta Goizeta kanpo uzten dira, baina nik uste dut ingurua handiagoa dela, eta herri horiek ere barne izan beharko luketela».

Larraungo Udalak, azkenik, zahar etxea Mugi-

ron dagoen Gurutze Gorriko egoitza zaharrean jartzea proposatu du. Eraikina Nafarroako Gobernuarena da, baina Larraungo Udalarik 30 urtean erabiltzeko baimena eman dio. Pedro Manuel Barberia Larraungo alkateak aipatu digunez, «hainbat abantaila ditu etxe honek, alde batetik azpiegitura eta sarbideak eginda daudelako, eta bestetik, merkeagoa izanen delako».

Gurutze Gorriko egoitza zaharra erabili ezezik, haren ondoan eraikin berria egiteko aukera ez du

baztertu Larraungo Udalak.

Udalen artean akordioa lortzea hoberena dela uste duten arren, lortuko duten ala ez ikusteko dago oraindik. Jose Maria Aierdi Lekunberriko alkateak lortuko dutela espero du eta baikor da; ez, ordea, Keni Zelaia Leitza udaleko idazkaria.

Jesus Gonzalez Beteluko alkateak eta Pedro Manuel Barberia Larraungo alkateak ere, akordiorik lortu ezean Nafarroako Gobernuak erabaki beharko duela azpimarratu dute. X

◆ Daniel Arbeletxe ◆ Haize Berri elkarteko lehendakaria

s o s l a i a

«Euskarari ematen diogu lehentasuna»

Daniel Arbeletxek ongi ezagutzen du Nafarroa Behereko kulturaren egoera. 41 urterekin, orain dela hamalau izuran sortu zen Haize Berri elkarteko bultzatzaile eta sortzaileetako bat da. Orain dela lau urte elkarteko lehendakari izendatu zuten.

Julen Arriola / Izura

220 BIZTANLEKO herria da Izura, eta bertan dago Haize Berri elkarteak. Mota askotako kultur ekitaldiak antolatzen dituzte, beti euskarari lehentasuna emanez. Elkarteari eta bere jarduerari buruz mintzatu gara Daniel Arbeletxe lehendakariarekin.

■ **Nola liteke 220 biztanle dituen herri batean halako kultur zentro bat egotea?**

Orain dela hamalau urte, iholdi eta Amikuzeko kantonamenduetako herriek Haize Berri elkartearen sorrera ahalbiderratu zuen akordioa sinatzea lortu genuen, jada, kultur etxe baten alde lanean ari zen ehun bat laguneko taldea bazegoen. Izura aukeratzeko hiru arrazoi daude. Uste genuen, eta hala uste dugu oraindik, Nafarroa Beherean Administrazioaren zerbitzu gehienak Donapaleuk eta Donibane-Garazik eskaintzen dituzten bitartean, Izura bezalako herri txiki bati kulturaren aldetik heltzen ahal zaiola bizitzia. Bigarren arrazoiak da etxe hau hutsik zegoela, eta obretan sartu beharreko diru kopurua, neurri batean, txikia zela. Azkenik, arrazoi historiko bat dago, mendeetan Donejakue Bideko bidegurutzea izan baita Izura, Nafarroara ailegatzeko atea, eta merkataritzari dagokionez, garrantzia izan du historiaurretik duela gutxiira arte.

■ **Donejakue bideetako hiruren bilgune zela, baina, Donapaleun ez dute onartzen, eta bilgunea euren herria zela diote.**

Donapaleuren jarrera, neurri batean, aukera ekonomikoaren ildotik dator, are gehiago gaur egun, Donejakue Bidearen moda asko indartu denean turismoari dagokionez. Ni ez naiz historia-laria bidegurutzea non zegoen errateko, baina nabarmendu nahi dut Euskal Herriko eta baita Frantziako historialariek, aho batez, Izura jotzen dutela bidegurutze nagusitzat. Horien aurrean, historialari bat dago Donapaleun —Urrutibeñiti dokto-

rea— beste tesia defenditzen duena. Baina Izura Donapaleu baino lehenago existitzen zen, eta XII. mendeko agiri batean Nafarroako atetzat jotzen dute.

■ **Zuen elkarteak eskaintzen dituen ekitaldien artean, mota askotako tailerrak daude.**

Laborariei zuzendutako musika eskola dugu, dantza ikastaroak, emakumeentzako gimnasia, argazkigintza tailerra, irrati programa bat, formazio ikastaroak, gau eskola. Iparraldean Euskal Kantu Xapelketa antolatzen dugu, erakusketa anitz antolatzen dugu, besteak beste, Marrazkiri umore erakustaldia, baita antzerki lanak, kantaldiak edo hitzaldiak.

■ **Ekitaldi guztiak euskaraz izaten dira, ezta?**

Bai, gehienak. Baina argi dago Frantziako antzerki talde bat ekartzeko aukera badugu, ekartzen dugula, baina betiere lehentasuna euskarari emanez.


■ **Izuraraino kantonamendukoa ez den jendea ere hurbiltzen da.**

Txalaparta ikastaroetara Iparralde guziko jendea etortzen da. Iazko erakusketatik 700 lagun pasatu ziren. Ikastaro eta tailerretako jende gehiena bi kantonamenduetakoa da. Gainera, erran beharra dago Haize Berriren ekitaldi guztiak ez direla Izuran egiten, anitz beste herritan egiten dira.

■ **Nola liteke erabat euskalduna den herri batean sarrerako seinalean oraindik Ostabat jartzea (Izura frantsesez)?**

Egia erran, elebiduna zen, baina orain dela lau urte norbaitek euskarazko kartela kendu zuen eta Udalak ez du ahalegin handirik egin berri bat jartzeko. Izura izan zen seinale elebidunak jarri zituen lehenengo herria kantonamenduan.

«Orain dela bost urte existitzen ez zen euskara berreskuratzeko fenomenoak sortu da gazteen artean»



Daniel Arbeletxe, Haize Berri elkarteko lehendakaria.
LUTXI FOURCADE

■ **Kantonamenduko herri txikienetara ere ailegatzeko dira Euskal Herriko rock talderik puntakoenak. Errudunak zuek al zarete?**

Talde bat nola kontratatu ez dakitenak laguntzen saiatzen gara, beharrezkoa den azpiegitura lortzen, promozioa egiten, eta Nafarroa Behereko beste guztiak koordinatzen ditugu. Rock taldeena moda da. Izuran bi urtez

Etsaiak jo du, eta jende anitz dator, Donapaleun Su Ta Gar izan da, eta Arrunta. Nafarroa Behereko talde euskaldunak ekarri behar ditu jendea erakartzeko.

■ **Hainbat gogoeta eta ikerketaren arabera, nahiz eta Nafarroa Beherea izan herrialde euskaldunena, erabilera galtzen ari da.**

Inkestek egia erraten dute, baina sustraiak egoera ekonomiko zail batean bilatu behar dira, gazteak lana bilatzera alde egitera behartzen dituen egoera. Gainera, barnealdean ikastolena gutxieneko fenomenoak da. Dena den, ez naiz pesimista, gazteen artean orain dela bost urte existitzen ez zen euskara berresku-

ratzeko fenomenoak sortu baita.

■ **Noiz eta nola lortuko dugu Nafarroa Beherearen eta Nafarroaren arteko harremanak normalizatzea?**

Hegoaldekoak gero eta gehiago etortzen dira Iparraldera, baina nola datoz? Aho zabalik etortzen badira erranez «baserriak, egiazko eskualdunak!», mito nazional horrekin jarraituko dugu. Sortzen ari den modarekin jarraitzea da. Nik ez dut erraten Parisko turistak bezala etortzen direnik, baina errespetatu behar dituzte hemengo ohiturak eta egoera. Nafarrak eta euskaldunak, oro har, gure senideak dira, errespetatzen bagaituzte errespetatuko ditugu.

Daniel Arbeletxe Baionako katedralean errefuxiatuek egin zuten lehen gose greba bitartean murgildu zen kulturaren munduan. «Hara hurbildu nintzen zer zen ikustera, eta nire baitan al daketa sakona gertatu zen».

Iparraldeko beste gazte asko bezala, hamasei urte zituen arte ez zen hasi euskaraz hitz egiten. «Etxean txikitik ikasitako euskara ez genuen erabiltzen, gaur egungo gazteek gu baino kontzientzia handiagoa dute orain erabiltzeko».

Daniel Lantarkin antzerkiaren arloan lan egin ondoren, «benetako gazte-lua» erosi zuen Izuran, ez printze baten moduan bizitzeko, baizik eta laborantzari ekitiko.

BEKARIO!

Zaldi Eroa

